

## 1. INPRIMAKETA FORMATUAK

Kontratu honek barne hartzen dituen inprimaketa-lanak eta diseinu grafikoko lanak honako formatu mota hauetan egingo dira. Eskaintzaileek eskuragarri izango dute lan horien eredu bat iragarki honetan ezarritako epean:


### ◆ 1. gutun-orria:

- 80 gramoko paper zuria, DIN-A4 tamainakoa.
- Goiko aldean, **musikene** logotipoa beltzez inprimatua; beheko aldean, helbidea, ezarritako estandarren arabera, eta honako logotipo hau: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.



### ◆ 2. gutun-orria:

- 80 gramoko paper zuria, DIN-A4 tamainakoa.
- **musikene** logotipoa beltzez inprimatua goiko zein beheko aldeetan, ezarritako estandarren arabera.



### ◆ 2 hegaleko karpeta:

- 250 gramoko kartoi mehe zuria; tamaina: 430x315 mm.
- **musikene** logotipoa beltzez inprimatua eta tolestua, 215x315 mm.

### ◆ Gutun-azalak:

- Autodex poltsa motako gutun-azal zuria; tamainak: 324x229 mm eta 260x360 mm.  
**musikene** logotipoa beltzez inprimatua atzeko aldean eta igorlea beltzez inprimatua aurreko aldean.
- Autodex amerikar gutun-azala.  
**musikene** logotipoa inprimatua eta igorlea beltzez atzeko aldean.
- Autodex gutun-azal zuria; tamaina: 162x229 mm.  
**musikene** logotipoa inprimatuta eta igorlea beltzez atzeko aldean.
- Securifil autodex poltsa motako gutun-azala; tamaina: 260x360.  
**musikene** logotipoa inprimatua eta igorlea beltzez atzeko aldean.

### ◆ Ale biko inprimakiak

- DIN-A4ko sorta, ale bikoak

- Euskara-Gaztelania, 2 orrialdeko inprimakiak. 1. orrialdea, zuria, **musikenerentzat**, eta 2.a, horia, interesatuarentzat.

◆ **Programak**

- Paper couché distiratsua, 150 gramokoa, hainbat tamainatakoa: 180x120 mm., 300x210 mm., 450x210 mm.
- 1+1 inprimatuak eta tolestuak (tamainaren arabera, triptikoak ere bai).

◆ **Gabonetako postalak**

- Gabonetako postalak beltzez inprimatuak
- Horietarako gutun-azalak, beltzez inprimatuak; tamaina: 163x115 mm.

◆ **Zigilua/Tanpoia**

- Kautxuzko zigilua (birakaria hainbat digiturekin)
- Hainbat koloretako tanpoiak

## **2. DISEINU GRAFIKOA**

◆ **Berriak aldizkaria**

Aldizkariaren eta gehigarriaren diseinua, garapena, maketazioa, argazki-berrikutzea eta originalak eta kolore-probak (digitalak) egitea.

Itxia: 210x297 mm.; irekia: 420x297 mm.; 170 gramoko paper iztukatu matea, 4+4, tolestua eta enbutxatua (aurreinprimaketa barne).

◆ **Offset inprimaketa – Gonbidapena eta Liburuxka**

Diseinua, garapena, maketazioa eta originalak egitea, bai eta kolore-probak ere (digitalak). Itxia: 185x120 mm.; irekia: 555x120 mm. edo 370x120 mm. Paper iztukatu distiratsua, 170 gramokoa, 2+2 tinta, berniza, arrailtzea eta tolestea.

◆ **Offset inprimaketa – Txarteltzarra**

Diseinua, garapena, maketazioa eta originalak egitea, bai eta kolore-probak ere (digitalak). Fotolitoak, trokela eta iris-probak, A4. Paper couché distiratsua, 350 gramokoa, 80x210 mm., 2+2 tinta eta berniza.

◆ **Offset inprimaketa – Diptikoa**

Diseinua, garapena, maketazioa eta originalak egitea, bai eta kolore-probak ere (digitalak). Itxia: 80x210 mm.; irekia: 160x210 mm.; 170 gramoko paper iztukatua, 4+4 tinta, berniza, arraildua eta tolestua.

◆ **Offset inprimaketa – Triptikoa**

Diseinua, garapena, maketazioa eta originalak egitea, bai eta kolore-probak ere (digitalak). Itxia: 100x210 mm.; irekia: 290x210 mm.; 170 gramoko paper iztukatua, 4+4 tinta, berniza, arraildua eta tolestua.

◆ **Elastikoak**

Elastiko beltzak (kotoizkoak, 180 g), tinta bakarrean estanpatuak.

## **3. ALE KOPURUA**

**musikeneren** Administrazioak adieraziko dio esleipendunari zenbat ale inprimatu behar dituen, dagokion lana egiteko eskatzen dionean.

#### **4. BIDAIEN KOSTUAK ETA GARRAIO SARIAK**

Enpresa eskaintzaileek honako kostu hauek barne hartuko dituzte eskaintzen dituzten prezioetan: kontratuaren xedea betetzeko ordaindu beharreko gastu guztiak, hala nola bidaia-kostuak, garraio-sariak (bai eta paketatze- eta biltze-gastuak ere), eta kudeaketa- nahiz mezularitza-kostuak.

#### **5. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUARI DAGOKION ERANSKINEAN BILDUTAKO LANEI ETA PREZIOEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK**

Erabili beharreko fotolitoak aldeztatik enpresa esleipendunaren esku utzita, inprimaketa-lanak eta diseinu grafikoko lanak egitean, karatula honen 2. atalean barne hartutako deskribapen teknikoak izango dira kontuan.

#### **6. BESTE ZENBAIT OHAR**

- Lan horiek egiteko erabilitako material oro **musikenerena** da.
- Lanak bukatutakoan, argitalpenen originalak eta horiek egiteko erabilitako materiala **musikenera** helaraziko dira dagozkien fakturekin batera.
- Fakturak banakatuta aurkeztuko dira eta honako hauek hartuko dituzte barne: kontzeptu bakoitzaren banakako eta guztizko prezioak.

Nolanahi ere, **musikenek** kontratu bat sinatuko du enpresa esleipendunarekin, eta bertan, baldintza hauek ez betetzeak izango dituen ondorioak arautuko dira, besteak beste.